Legorretako Udala

2026EDID0004

**LEGORRETAKO UDALA**

*Euskara ikasteko dirulaguntza deialdia.*

2026ko uztailaren 7ko 280/2026 Alkate Dekretuaren bidez Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko 2026 ekitaldiari dagozkion oinarriak onartu ziren.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, dirulaguntza honi dagokion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko epea irekiz.

Mutriku, 2026ko uztailaren 9a. Alkatea. Iñaki Agirre Jauregi

**EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK**

**2026 URTEA**

**Atarikoa**

Legorretako Udalak euskararen aldeko hizkuntza politika sustatzen du, euskararen biziberritze eta normalizazioaren helburuarekin, bere esparru guztietan eta, aldi berean euren eguneroko bizitza euskaraz egin nahi duten bizilagunei aukera hau bermatze aldera.

Dirulaguntza deialdi honen xedea hiztun berriak lortzea eta euskararen erabileraren esparruak zabaltzea eta sakontzea da.

**AYUNTAMIENTO DE LEGORRETA**

*Convocatoria de subvenciones para el aprendizaje de Euskara*

Mediante Decreto de Alcaldía 280/2026 de 7 de julio de 2026 se aprobaron las bases reguladoras de las ayudas para el aprendizaje del euskara correspondiente al ejercicio 2026.

Considerando dichas bases, se realiza la convocatoria de estas subvenciones, disponiendo el plazo para la presentación de solicitudes.

Mutriku, a 9 de julio de 2026. El Alcalde. Iñaki Agirre Jauregi

**BASES DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKARA**

**AÑO 2026**

**Preámbulo**

El Ayuntamiento de Legorreta impulsa una política lingüística a favor del euskara, con objeto de dinamizar e impulsar la recuperación y la normalización del euskara en todos los ámbitos y, al mismo tiempo, posibilitar la opción de los/as vecinos/as que desean realizar su vida cotidiana en euskara.

El objeto de la presente convocatoria de subvenciones es la adquisición de nuevos hablantes y la ampliación y profundización en los ámbitos de uso del euskera.

Legorretako Udala

Deialdi hau aurrera eramateko Udal honek baliabide ekonomiko nahikoa eta egokia aurreikusi du Legorretako Udalaren 2026-2028 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

Para llevar a cabo esta convocatoria este Ayuntamiento ha previsto en el Plan Estratégico de Subvenciones 2026-2028 del Ayuntamiento de Legorreta recursos económicos suficientes y adecuados.

**1. Xedea**

Deialdi honen xedea euskara ikasteko ikastaroen gastuak ordaintzeko dirulaguntzak norgehiagoka ematea arautzea da, baldin eta ikastaro horiek ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta ekimen hauek dirulaguntza deialdi honen 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean gauzatzen badira.

**1. Objeto**

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva para sufragar los gastos de los cursos de aprendizaje del euskera que cumplan los requisitos establecidos y que se desarrollen entre el 1 de octubre de 2025 y el 30 de septiembre de 2026 de la presente convocatoria de subvenciones.

**2. Finantzazioa**

Legorretako Udalak dirulaguntza lerro hau finantzatzeko 3.000,00 €ko (hiru mila euro) kopurua jaso du 2026 ekitaldiko “Euskara ikasteko dirulaguntzak” 1 0000.480.01.335.00 aurrekontu aplikazioan.

Aurreikusitako epean aurkeztutako eskariak kontuan hartuko dira erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, egon litezkeen kreditu gehitzeak ere aintzat harturik.

Dirulaguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako gehieneko muga horretara iristeko biderik uzten, dirulaguntza bakoitza proportzioan murriztuko da, ikastaroaren kostu eta balorazioan lortutako puntuazioa kontuan hartuta.

**2. Financiación**

El Ayuntamiento de Legorreta ha consignado para la financiación de esta línea de ayudas la cantidad de 3.000,00 € (tres mil euros) en la aplicación presupuestaria 1 0000.480.01.335.00 del ejercicio 2026.

Las solicitudes presentadas en el plazo establecido se atenderán hasta agotar el presupuesto disponible, incluidas, en su caso, las incorporaciones de crédito.

En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dicho límite, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente en cada caso, en función del coste del curso y de la puntuación obtenida en la valoración.

**3. Onuradunak**

Ondoko ukanbeharrak betetzen dituzten pertsona fisikoek jaso ahal izango dute dirulaguntza:

**3. Beneficiarios/as**

Podrán obtener las subvenciones las personas físicas que cumplan los siguientes requisitos:

Legorretako Udala

a) Legorretako udalerrian erroldatutakoak.
b) HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) onetsitako zentroetako batek emandako ikastaroren batean matrikulatuta egotea.
c) Matrikulatutako ikastaroan gutxienez %80ko asistentzia izatea.

**4. Lagundu daitezkeen ikastaroak**

Diruz lagundu ahalko dira HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean antolatutakoak.

**5. Eskaerak aurkeztea**

Dirulaguntza eskaria ondoko moduan aurkeztu beharko da:

a) Eskaera erregistro elektronikoan aurkeztu ahalko da, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoetan, posta bulegoetan erregelamenduz ezartzen den moduan, edo indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

b) Erregistro elektronikoan aurkeztuz gero, eskatzaileak erabili beharko ditu sinadura elektronikoa edo pasahitza. Eskaera eta harekin joan behar duen dokumentazioa Legorretako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (https://www.legorreta.eus) aurkeztuko da.

c) Deialdiaren informazioa eta eskaera orri normalizatua eskuragarri egongo da Legorretako Udalaren egoitza elektronikoan (https://www.legorreta.eus).

a) Empadronados en el municipio de Legorreta.
b) Hallarse matriculado en algún curso impartido por algún centro reconocido por HABE (Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Personas Adultas).
c) Tener una asistencia mínima del 80% del curso matriculado.

**4. Cursos subvencionables**

Serán subvencionables los cursos de euskaldunización y alfabetización impartidos por los euskaltegis y centros homologados por HABE, organizados entre el 1 de octubre de 2025 y el 30 de septiembre de 2026.

**4. Presentación de solicitudes**

La solicitud de subvención deberá presentarse cumpliendo lo siguiente:

a) La solicitud podrá presentarse en el registro electrónico, en las oficinas de asistencia en materia de registros, en las oficinas de correos en la forma que reglamentariamente se establezca, o en cualquier otro lugar previsto en las disposiciones vigentes.
b) En caso de presentarse en el registro electrónico, el solicitante deberá utilizar la firma electrónica o la clave operativa. La presentación de la solicitud y la documentación complementaria vía Internet se realizará a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legorreta (https//www.legorreta.eus).
c) La información de la convocatoria y el impreso normalizado de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento de Legorreta (https//www.legorreta.eus).

d) Eskaerak aurkezteko epea 2026ko irailaren 30ean bukatuko da.

d) El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 30 de septiembre de 2026.

**6. Aurkeztu beharreko agiriak**

Dirulaguntza eskaria aurkezteko beharrezko agiriak ondokoak dira:

- Dirulaguntza eskatzeko orria, eredu ofizialari jarraituz behar bezala beteta.

- NAN fotokopia.

- HABEk onetsitako zentroetako batek emandako ikastaroen izen-emate egiaztagiria.

- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

- Asistentzia eta aprobetxamendu egiaztagiria.

**6. Documentación a presentar**

La documentación necesaria para la presentación de la solicitud de subvención es la siguiente:

- Instancia de solicitud de subvención debidamente cumplimentada de acuerdo con el modelo normalizado.

- Fotocopia del DNI.

- Certificado de haber estado matriculado en algún curso impartido por HABE.

- Certificado de titularidad de cuenta corriente.

- Certificado de asistencia y de aprovechamiento del curso.

**7. Dirulaguntzak banatzeko baremo aplikagarriak**

Eskarien balorazioa egiteko aplikatuko diren irizpideak honako hauek izango dira:

**7. Baremos aplicables para el reparto de subvenciones**

Los criterios que se aplicarán para la valoración de las solicitudes serán los siguientes:

| Modalitatea / Modalidad | Portzentajea | Kopurua |
|---|---|---|
| Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaro presentzialak (Barnetegiak barne) / Los cursos presenciales de euskaldunización y alfabetización (incluido Barnetegi) | %100era arte / Hasta el 100% | Gehienez ere 400,00€ Hasta un máximo de 400,00€ |
| Auto ikaskuntza / Cursos de autoaprendizaje | %100era arte / Hasta el 100% | Gehienez ere 400,00€ Hasta un máximo de 400,00€ |

Ezingo da izan landu beharreko ikastaro edo jardueraren kostua baino handiagoa.

El importe de las subvenciones no podrá, por sí solo ser superior al coste del curso o actividad.

**8. Izapidetza eta ebazpena**

Legorretako Udaleko Kultura zerbitzuak izapidetuko du espedientea eta alkate

**8. Tramitación y resolución**

El expediente será tramitado por el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de

ebazpenez ebatziko da espedientea.

Dirulaguntza izapidetzeko eta ebazteko egintzak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira: www.legorreta.eus

### 9. Baldintzak ez betetzea

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Ordurako dirulaguntzaren zati bat jasota izanez gero, hori itzuli egin beharko du, eta dagozkion atzerapen interesak eskatu ahal izango zaizkio.

Dirulaguntza deialdira aurkezten diren pertsona fisikoek hertsiki bete beharko dituzte indarrean dagoen ekonomia, zerga eta lan alorreko araudia.

### 10. Interpretazioa eta araudi aplikagarria

Legorretako Udaleko Alkateak oinarri hauen garapenerako eta exekuziorako beharrezko diren egintza eta xedapen guztiak emango ditu.

Oinarrion interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzen erantzun proposamenak Kultura zerbitzuak proposatuko ditu eta ondoren Alkateak ebatziko ditu.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztiari azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko zaizkio.

Legorreta y resuelto por resolución del Alcalde.

Los actos de tramitación y resolución de la subvención se publicarán en el tablón de anuncios de la sede electrónica de www.legorreta.eus.

### 9. Incumplimiento de las bases

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de las condiciones establecidas en las presentes bases conllevará la declaración de la pérdida de derecho a la subvención, la obligación a restituir las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente.

Las personas físicas que opten a las ayudas deberán ajustarse estrictamente a la legalidad vigente en materia económica, fiscal y laboral

### 10. Interpretación y normativa aplicable

El Alcalde dictará cuantos actos sean necesarias para el desarrollo, ejecución e interpretación de las presentes bases.

Las propuestas de respuesta de las dudas que puedan surgir en la interpretación o aplicación de estas bases serán planteadas por el servicio de Cultura y resueltas por el Alcalde.

En todo lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en las demás normas vigentes.